

## Lankiren eskutik, Ulmako 500 langilek jasoko dute formazio kooperatiboa

2014/10/08

Mondragon Taldeko Otalora eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki Lankidetzaren Ikertegia formazio kooperatiboa eskaintzen ari dira Ulma Construcción (Ulma CyE) kooperatiban. Abendura arte, kooperatiba horrek dituen zazpi egoitzetako 500 bazkideek jasoko dute kooperatibismoaren gaineko prestakuntza.

Zortzi hilabete iraungo duen formazioaren helburuak dira, batetik, hausnarketa egitea Ulma eraikuntzak egin duen ibilbidearen gainean eta bazkideen artean konpartitzea bilakaera horren gaineko pertzepzioak, eta, bestetik, sakontzea balio kooperatiboetan. Bermatze aldera parte hartzaileen arteko giro egokia eta hausnarketaren sakontasuna, saioak prestatu dira 20 laguneko taldetan egiteko. Alde horretatik, berebiziko garrantzia eman zaio talde horien osaketari, horregatik, lantalde berean bilduko dira departamentu desberdinetako bazkideak: produkziokoak, teknikoak, administratzaileak, giza baliabidekoak... Guztira, han eta hemen, 30 formazio saio egingo dira.

Saio hasieran lankideek sakontzen dute Ulmaren historia: enpresaren sorrera, testuinguru ekonomiko-soziala, erakundeak bizi izan dituen mugari garrantzitsuenak... gainera, tarte horretan partaideek hausnartzen dute enpresak izan duen bilakaeraz. Ondoren, printzipio kooperatiboak ardatz hartuta, kooperatibaren egungo errealitatea aztertuko dute. Azterketa horrekin azalerratu nahi da bazkideek duten pertzepzioa kooperatibaren indargune eta ahulguneen gainean.

Errektore Kontseiluko ordezkariak ere hartzen dute esku saioetan. Horren asmoa da, lehenik eta behin, zuzenean jasotzea bazkideen ekarpenak. Bigarrenik, bazkideei azaltzea, gaur egun, Ulma eraikuntzak indarrean dituen estrategiak, bai negozioari dagokionez eta baita pertsonen kudeaketari lotutakoak ere. Hirugarrenik, Errektore Kontseiluko ordezkariak aurkezten dute abian duten ekintza plana, kooperatiban ikuspegi soziala indartzeko.

Ulma Eraikuntza kooperatibaren egoitza nagusia Oñatin dago baina, asteroko formazio saioak jasoko dituzte delegazio guztietako bazkide denek. Zazpi tokitan ditu egoitzak Ulma Construcción-ek: Goianen (Araba), Coruñan, Mallorcan, Bartzelonan, Granadan, Las Palmasen eta Ajofrinen (Toledo). Guztira, zortzi kooperatibek osatzen dute Ulma Taldea, Ulma CyE handiena da.



Formazio saioak kooperatibaren zazpi egoitzetan egingo dira.